

**TABERNA, KAFETEGI ETA ANTZEKOETARA ZUZENDUTAKO ESTABLEZIMENDU PUBLIKOAK
JARTZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ORDENANTZA**

**Udalbatzarrak 1998.04.27an onartua
1998.06.01ko GAOean argitaratua**

SARRERA

Eusko Jauriaritzak abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua onartu du behin-betiko. Dekretu horrek, batetik, ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak eta, bestetik, jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen ditu. Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Ordenantza hau Dekretu horretan adierazten diren irizpideetara egokitzea, bien artean bat etor daitezen aplikatzean, eta horrekin batera, egokitzea Ordefantzareb beste alderdi batzuk indarrean jarritako araudi berrietara, hala nola, NBE-CPI/96 eta horiei buruzko gainerako arauak.

1. Artikulua. Orokortasunak eta helburua.

1.1.- Azaroaren 30ko 2414/1961 Dekretuan, abuztuaren 27ko 2816/82 Dekretuan, Eusko Jauriaritzaren ekainaren 11ko 171/85 Dekretuan eta xedapen osagarri eta baterakorretan ezartzen denaren kalterik gabe, udal jarduna erregulatzea du helburu Ordenantza honek, I. eraskinean adierazitako ihardueraren bat betetzen duten establezimenduak eta beste izen bat izanik ere antzeko eta ostalaritza barruan tipifikatua jo daitekeen ihardueraren bat burutzen dutenak jartzeari, funtzionatzeari eta ikuskatzeari buruz. Aurrerantzean eta Ordenantza honen eremuan, "JARDUERAK" deituko ditugu.

1.2.- Nahitaez bete behar dira Ordenantza honetan jasotako aginduak aipatuko diren eta Arrasateko udalerrian jarri nahi diren establezimendu publiko guztietan. Erabilera hori baimenduta dagoen lekuetan ezarri behar dira horiek, aplikatzeko hirigintza planeamenduarekin bat.

1.3.-

1.3.1.- Adierazitako arauak hasiera-hasieratik udal lizentzia edo baimenaren sistemaren bidez eskatu ahal izango dira, halako jardueretan airtzeko eta batez ere Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarrien Araudiak 30. artikuluko 2 zenbakiko c atalean ezarritako ondorioetarako.

1.3.2.- Dena dela, Ordenantza hau aldarrikatu aurretik dauden establezimenduak ordenantzan zehazten direnetara egokitu behar dira, ordenantza aldarrikatu eta 5 urteko epean.

2. Artikulua. Azalera, edukiera eta mailak sailkatzea.

2.1.- Azalera publikoa

2.1.1.- Establezimendu baten azalera publikoa: pertsonak egoteko eta establezimenduko zerbitzuak erabiltzeko dagoen espazioa.

2.1.2.- Azalera hori honela lortuko da, lokalaren azalera erabilgarriari erabilera hauei dagokiena kenduko zaio:

-Komunak.

-Zerbitzuko eremua.

-Sukaldeak.

-Biltegia.

-Bulegoak.

-Erabilera publikotik kanpo geratzen diren edo erabiltzaileen egonaldia galeratzen duten espazio guztiak.

2.2.- Edukiera

- 2.2.1.- Lokal baten edukiera zer den: hango azalera publikoak har ditzakeen pertsonen kopurua.
- 2.2.2.- Lokal baten gehieneko edukiera: pertsona bat azalera publikoko metro karratu bakoitzeko.

2.3.- Mailak

- 2.3.1 Azalera publikoaren edo lokalaren edukieraren arabera, establezimenduak honela sailkatzea ezarri da:
- A maila - 40ra bitarteko m² edo pertsona.
B maila - 40tik 80ra bitarteko m² edo pertsona.
C maila - 80tik 160ra bitarteko m² edo pertsona.
D maila - 160 m² edo pertsona baino gehiago.

3. Artikulua. Jardueren arteko tartekak.

- 3.1.- Ordenantza hauetan araututako jarduera berri bat irekitzeko, gutxieneko tarte batzuk egongo dira jarduera berriaren eta lehendik dauden jardueren artean. Eraskinean aipatzen diren taldeei buruz, hauek izango dira tarte horiek:
- Hogeita hamar (30) metro Bigarren talde (II) osatzen duten jardueren artean eta beste hainbeste horien eta Hirugarren eta Laugarren (III eta IV) taldeetakoak direnen artean, eta alderantziz.
 - Ehun (100) metro Hirugarren taldea (III) osatzen duten jardueren artean eta beste hainbeste horien eta Laugarren taldea (IV) osatzen dutenen artean.
 - Berrehun (200) metro Laugarren taldea (IV) osatzen duten jardueren artean.
- 3.2.- Adierazitako tartekak neurtzeko, plantako proiektzioan zirkunferentzia bat marraztuko da; haren erradioa talde bakoitzarentzat ezarritako gutxieneko tarteak izango da, eta zentroa, berriz, jarri nahi den establezimenduko guneeetako edozein eta tarteak neurtzen zaion establezimendutik hurbilen dagoen guneeetako edozein.
- 3.3.- JATETXE moduan kalifikatutakoek ez dituzte jardueren arteko gutxieneko tartekak bete behar izango, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:
- Jarduera jatetxekoa izango da bakar-bakarrik, eta mahai eta aulkiez hartarako egokitutako lekuan bakarrik zerbitzatuko dira janari-edariak.
 - Ezin izango da egon barra mostradorerik edariak-eta hartzeko, baina zerbitzu barra bat jarri ahal izango da sartzen diren bezeroak hartzeko, alderik alde gehienez ere bi (2) metro luze izango dena, eta kafegailu bat jarri ahal izango da hor, nahiz eta ezin izango den leku horretan ezer kontsumitu.
 - Jantoki aldean edota harrera leku moduko batean aparte jarri ahal izango da lehen aipatu den barra hori. Jarlekuak egon ahal izango dira leku horretan, txandaren zain dauden bezeroentzat.
- 3.4.- Halaber, ez dira kontuan hartuko, jardueren arteko tarteei dagokienez, Jolas-Kultura Gastronomía Elkartek eta Ordenantza hauetako I. Eraskineko I. Taldean sartzen direnak.
- 3.5.- Berezitasunez, eta Udalbatzarraren irizpideari jarraituz, biltzen diren gorabeherak azterturik, eraskineko (II, III eta IV) Bigarren, Hirugarren eta Laugarren taldekoek ere ez dituzte jardueren arteko tartekak bete behar izango, beti ere jarduera ekonomikoen hirulur edo lur urbanizagarriko erreserbetan jartzen badira, indarrean dagoen Planeamenduan xedatutakoarekin bat.
- 3.6.- Suntsitu behar diren eraikinetan dauden jardueren jabe diren titularrek eskubidea mantenduko dute lehengo eraikinaren ordean egin behar den eraikinean jarduera jartzeko, 3 urteko epean establezimenduari baja eman edo hura ixten den egunetik hasita.

3.7.- Ez dute bete behar tarteen muga hori, Udalbatzarrak halaxe onartu eta gero, Ordenantza hauek arautzen ez duten beste jarduera nagusi baten jarduera osagarriak, kasu hauetan:

1. Zentro Publikoak
2. Ospitalak eta osasun zentroak
3. Hotelak

Halakoetan baldintza hauek bete behar dira:

- a) Jardueraren instalazioak oso-osorik egon behar dute sartuta jarduera nagusiaren eremuaren barruan.
- b) Jarduera nagusitik nahitaez egon behar da jarduera honetara doan sarbide bat; beti egongo da zabalik sarbide hori, eta beste sarbiderik ere egon daiteke, baina ez daukate zertan egon zerbitzuan, jarduera nagusia ez badago zerbitzuan.
- c) Kasu batean ere ezin izango da jarduera nagusitik banandu, eta ezingo du izan harena ez den beste titular bat.
- d) Jarduera hauek ezin izango dute martxan egon, jarduera nagusia zerbitzutik kanpo dagoen egoera guztietan.

4. Artikulua. Establezimenduen gutxieneko altura.

4.1.- Gutxieneko alturatzat hartuko da, lokaleko zoladuraren eta haren sabai-bukaerak duen edozein osagairen artean dagoena, kontuan hartu gabe sabaitik bereizten diren apaingarri hutsak.

Hauek izango dira gutxieneko alturak:

4.2.- Azalera publikoan:

- 4.2.1.-- 2,5 metro (I eta II) Lehen eta Bigarren Taldean sailkatutako establezimenduak
- 2,8 metro (III) Hirugarren Taldean sailkatutako establezimenduak
- 3,0 metro (IV) Laugarren Taldean sailkatutako establezimenduak

4.2.2.-Lehenago ezarritakoaren %10etik beherako altura izango duen perimetro alde bat izan dezakete establezimenduek, beti ere alde honen azalera osoa lokalaren azalera publikoaren %10etik gorakoa ez bada.

4.3.- Komun eta barra aldean:

- 2,40 metro (II) Bigarren Taldean sailkatutako establezimenduak
- 2,50 metro (III) Hirugarren Taldean sailkatutako establezimenduak
- 2,60 metro (IV) Laugarren Taldean sailkatutako establezimenduak

4.4.- Pasabide osagaiak

4.4.1.-Jendearentzako aldearen barruan dagoen edozein osagairen gutxieneko altura 2,20 metrokoa izango da, beti ere plantako proiektzioaren azalera 1 m²-tik gorakoa ez bada eta mota honetako osagai guztien azalera batuz lokalaren azalera publikoaren %10 gainditzen ez bada.

4.4.2.-Eraikuntza osagaien, hala nola zutabe eta edozein motatako hodian gutxieneko altura 2,2 metrokoa izango da, baldin eta beren gehieneko zabalera alderik alde 0,40 m-tik beherakoa bada eta osagai hauen proiektzioaren azalera osoa batuz lokalaren azalera publikoaren %10 gainditzen ez bada.

5. Artikulua. Establezimenduetara sartzeko bideak.

Eusko Jaurlaritzaren abenduaren 4ko 20/1997 Legeak ezarritakoaren kalterik gabe, "AILEGAERRAZTASUNA SUSTATZEKO" legea, eta hura garatzen duten erregelamenduak, batez ere Ordenantza honetako jarduerak eragiten dituzten alderdietan ezarriko direnak, osagarri moduan jarduera hauetara sartzeko bideetarako hauxe ezarriko da:

5.1.-Sarbidearen maila

- 5.1.1.- Espaloiko sestraren arabera, establezimendu baterako sarbidea egon daiteke:
- Kanpoko sestraren maila berean.
- Kanpoko sestraren mailatik gorago edo beherago.
- 5.1.2.- Ordenantza honen ondorioetarako, establezimendu bat kanpoko sestraren mailatik gorago edo beherago dagoela ulertuko da, jendeak erabiltzeko dituen zonaldeetako batek, azalera publiko osoaren %10 gutxienez izanik, datozen hauek baino maila ezberdintasun handiagoa duenean:

ESTABLEZIMENDU MOTA	DESNIBELA (CM)	MAILA KOPURUA
A	= 108	6
B	= 90	5
C	= 72	4
D	= 54	3

- 5.1.3.- Kanpoko sestraren mailatik gorago edo beherago dauden establezimenduek Ordenantzetako 5-3 atalak dioen guztia bete behar dute sarbideei dagokienez.

5.2.- Ateak.

- 5.2.1.- Ateen gutxienerako altura 2,10 m-koa izango da, komunetakoa eta jendearentzat ez den gainerako bulegoetarako izan ezik, horietan 2 m-koak izango baitira.

- 5.2.2.- Pasatzeko orriko gutxienerako zabalera hauxe izango da:

- 0,80 m. orri bakarreko ateetarako. Salbuetsirik daude komunera eta zerbitzuko bulegoetara joateko ateak; haien gutxienerako zabalera 0,60 m-koa izango da, baina elbarrientzako komunarenak gutxienez 1 metroko zabalera izango du.
- 1,20 m. bi orriko ateetarako, biak beti eraisteko moduan.
- Orriaren gehieneko zabalera 1,20 m-koa izango da.

- 5.2.3.- Kanpotik sartu-irteteko diren ate guztiek ixteko sistema automatiko bat izango dute, eta itxi posizioan egon behar dute.

- 5.2.4.- Kanpotik sartu-irteteko diren ate guztiak irteera aldera irekitzeko modukoak izango dira, hau da, kanpoaldera irekiko dira.

Kanpoaldera irekitzen diren ate hauek fatxadaren lerrotik barnealdera egon behar dute, biratzerakoan bide publikoan enbarazurik ez sortzeko moduan. Salbuetsirik daude larrialdietan erabiliko direnak, fatxadaren lerroan egon ahal izango direnak, baldin eta lokalaren ohiko sarrera moduan erabiltzen ez badira, eta ezingo dira ireki kanpoaldetik.

- 5.2.5.- Larrialdietarako ate guztiek irekiera antipanikoko sistema izango dute, eta lokalaren barruan ez da sarbidea oztopatu dezakeen ezer egongo.

- 5.2.6.- Hirugarren eta Laugarren (III eta IV) taldeen barruan sartutako establezimendu guztiek sartu-irteteko ate bikoitza izango dute, eta haizea galerazteko atari bat egingo dute, larrialdietakoak hartzen direnak izan ezik, lokalera sartu-irteteko erabiltzen ez direnak.

Ate horien ekorketa eremuaren gutxienerako aldea 0,50 m-koa izango da.

- 5.2.7.- Bigarren (II) Taldekoak diren establezimenduak eta lokalaren barruan 90 db(A) baino gehiagoko zarata egiteko gai diren aparatuak dituzten establezimenduek era berean ate bikoitzak izango dituzte, haizea galerazteko ataria eginez.

- 5.2.8.- Kanpoko sestratik gorago edo beheragoko mailan dauden establezimenduetan, atearen gutxienerako zabalera 1,20 m-koa izango da.

- 5.2.9.- Hona hemen kanpotik sartu-irteteko ateen kopurua eta zabalera establezimenduetarako:

AZALERA PUBLIKOA	ATE KOPURUA	GUTXIEN. ZABALERA	ALTERNATIBA
40 m ² -raino	1	0,80 m.	--
80 m ² -raino	1 orri bikoitzekoa	1,20 m.	0,80ko 2
160 m ² -raino	2 orri bikoitzekoa	1,20 m.	1,20ko 1 eta 0,80ko 2
160 m ² -tik gora	orri bikoitzeko 2 + orri bikoitzeko ate 1, 100 m ² -ko edo frakzioko	1,20 m.	1,20ko 2 + 0,80ko 2, 100 m ² -ko edo frakzioko

5.2.10.- Arauz irten-sartzeko ate bat baino gehiago behar dituzten establezimenduetan, lokalaren egiturak gehienez ere uzten duen distantzia egongo da ate horien artean.

5.3.- Eskailerak:

Baldintza hauek bete behar dituzte establezimendu publikoetara edo haien eremu publikoetara sartzeko eskailerek:

- 5.3.1.- Maila bakoitzaren (C) altura ez da 17 cm baino handiagoa izango eta urratsa (H) ez da 28 cm baino txikiagoa izango.
- 5.3.2.- Iraunkorra izango da C/H erlazioa eskailera guztian eta 62 eta 64 cm artean egongo da 2 C + H balioa.
- 5.3.3.- Eskailera hormen artean eginez gero, gutxienez albo batean eskudela jarriko da, eta eskaileraren zabalera 2,40 cm-koa bada, tarteko eskudela bat jarriko da.
- 5.3.4.- Eskailera kurbak onartuko dira, baldin eta barne muturretik neurturik gutxienez 28 cm-ko urratsa badaukate, eta urrats horrek ez da 42 cm baino handiago izango kanpoko ertzean.
- 5.3.5.- Eskaileren eta eskaileretara iristeko bide guztien gutxieneko zabalera 1,20 m-koa izango da.
- 5.3.6.- Eskaileren ahoaren eta horietara iristeko bide guztien gutxieneko altura 2,20 m-koa izango da.
- 5.3.7.- mailaren zabalera eta eskaileren kopurua hemen laukian adierazten direnak izango dira, eta azalera publikoa hustu beharreko plantari dagokiona izango da.

AZALERA PUBLIKOA	ESKAILERA KOPURUA	GUTXIENKO ZABALERA	GUTX. BANANTZEA ARDATZEN ARTEAN
40 m ² -raino	1	1,20	-.
80 m ² -raino	2	1,20	3 m.
160 m ² -raino	2	1,20	5 m.
160 m ² -tik gora	2	1,80	8 m.

Ardatzen arteko gutxieneko aldea hustu beharreko solairuaren arranketik neurtuko da. Beste solairuetan, eskaileren arranken arteko aldea ez da inoiz 3 m. baino gutxiagokoa izango.

- 5.4.- Establezimendu publikoetan sartzeko pasabideen eta espazioen arteko komunikazioko gutxieneko zabalera dagokien sarrera elementuena izango da eta inoiz ez da izango 1,20 m. baino txikiagoa.

6. Artikulua. Giroaren berritzea.

- 6.1.- Lokalaren aireztatzea era naturalez zein derrogortuaz edo sistema biak nahastuta egin daiteke, baina emaitza moduan lokalaren lokalaren bolumena orduero 8 aldiz berritu behar du, eta kontuan harturik beti ere, erabiltzen den sistema erabiltzen dela, inolako enbarazurik sortu gabe egingo dela aireztatzea.

- 6.2.- Era naturalaren bidez «A» mailakoak diren establezimenduetan bakarrik berritu daiteke giroa, ehun direkzio egingarrik osatutako leihosareen bidez, establezimenduaren azalera publikoaren %1 edo gehiagoko azalera batez.

Establezimenduak leihoak izan ahalko ditu, baina argi naturalari sartzen uztea edo larrialdietarako hustubide gehigarria izatea izango da haien zeregina, baina inoiz ere ez dute beteko aireztatzeko sistemaren zeregina, eta jarduera gauzatzen den garaian itxita egon behar dute. Hala ere, aireztatzeko erabili ahal izango dira, jendearentzat itxita dagoen orduetan.

- 6.3.- Aireztatze derrigortua.

- 6.3.1.- Depresio edo gainpresioaren bidezko giroaren berritze derrigortua fatxadaren aldetik egin daiteke, 100 m² baino gutxiagoko azalera daukaten lokaletan, ehun tolesgarriko leihosare baten bidez, eta sestratik 2,30 m-ko gutxieneko alturara egongo da leihosare hori.

- 6.3.2.- Azalera publikoan 100 m²-tik gorako lokaletan hustubidea hodi eskusibo baten bidez egin behar da. Hodi hori 2 m-ra egongo da teilatuaren hegalkinaren gainetik eta 5 m-tik gorako gehiagoko distantziara alboko eraikinetako leihoetatik, egonez gero, gain presioz aireztatzen den kasuetan izan ezik.

- 6.3.3.- Sukaldeetako airea gainpresioaren bidez berrituko da eta 6.3.1 atalak dioenari jarraituz berrituko da, edota depresioaren bidez eraikinetako estalkira hustuz gero, teilatuko hegalkinaren gainetik bi (2) m-ra dagoen hodi eskusibo baten bidez.

Sukaldeetan edo janariak prestatzen ddiren lekuetan, sukalde, labe, plantxa eta antzekoek sortutako ke eta gasak ezabatzeko, horiek hartu eta aterako dituen hodi eskusibo bat erabiliko da. Hodi hori erreezineko materialez egindakoa izango da eta estalkiaren hegalkinetik bi (2) m-tik gora eta, egonez gero, alboko eraikinetako aireztatze leiho eta zuloetatik bost (5) metrotik gorako distantzian egongo da.

Baldin eta sukaldeko lokalak lau (4) metro karratuz beherako azalera badu eta tapak eta pintxoak prestatzeko erabiliz gero, kea, gasak eta kiratsak hartuko dira arazteko sistemak dituen kanpai baten bidez, establezimenduko esparru publikora atera ahal izateko.

Salbuespen gisa Ordenantza hau aldarrikatu baino lehen dauden establezimendu guztietan, haien azalera publikoa ehun (100) metro karratuz beherakoa denean, lau (4) metro karratuz gorako sukalde izanik eta titularrak eraikinaren estalkiraino hodi eskusiborik jartzerik ez duela arrazoiz frogatzen badu, irtenbide alternatiboak onartuko dira, Udalaren Zerbitzu Teknikoen txostena egin eta Udalbatzarrak hori aztertu ondoren, eta alternatiba horietan agertuko da hartu eta ateratzeko tresnak instalatzea, arazteko eta iragazkaizteko sistemekin. Horrela, keak, gasak eta kiratsak araztu ondoren establezimenduko esparru publikora zuzenean aterako dira.

7. Artikulua. Komunak.

7.1.-Komunen baldintza orokorrak.

- 7.1.1.- Komunen neurriak behar bezalakoak izango dira eroso erabiltzeko modukoa izan dadin, eta komunaurre itxi baten bidez lokalaren gainontzekotik berezirik egongo dira komunak.

- 7.1.2.- Komunaurre horietan konketak jartzen utziko da bakarrik. Pixategiak lokalaren gainontzekotik berezirik egongo dira; ez da onartzen, hortaz, horiek komunaurreetan jartzea.

- 7.1.3.- Komunen aireztatzea era naturalez egin daiteke kanpoko hutsuneen bidez. Aireztatzeak derrigortua izan behar badu, eta 100 m²-tik beherako lokaletan, fatxada edo etxartera ateratzea onartuko da.

Hormak eta zoruak estaltzeko, zeramika eta antzeko materialak erabiliko dira, erraz garbitzeko modukoak.

Fatxadatik ateratzen badira, espaloiaaren sestratik 2,30 m-ko alturan jarritako leihoare batetik irtenaraziko da.

Era derrigortuz aireztatzen denean, aireak irteteen ez du ezelako enbarazurik sortu behar.

- 7.2.- Higiene zerbitzuak lokalaren azalera publikoaren arabera.
- 7.2.1.- Azalera publikoko 80 m²-raino, komun gela bi, bata emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat.
- Emakumezkoenak gutxienez komuna eta konketa izango ditu.
 - Gizonezkoenak gutxienez komuna eta konketa izango ditu, eta pixategia jartzea gomendatzen da.
- 7.2.2.- Azalera publikoko 160 m²-raino, komun gela bi, bata emakumezkoentzat eta bestea gizonezkoentzat.
- Emakumezkoenak gutxienez komun bi eta konketa bi izango ditu.
 - Gizonezkoenak gutxienez komuna, pixategia eta konketa izango.
- 7.2.3.- 160 m²-tik aurrera eta 100 m²-ko frakzio bakoitzeko, komunen kopurua bi unitatetan gehituko da, gizonezkoentzat bata eta emakumezkoentzat bestea. Unitate horietako bakoitzak gutxienez komuna eta konketa izango ditu emakumezkoentzat, eta konketa, pixategia eta komuna gizonezkoentzat.
- 7.2.4.- Establezimenduak dituen komunitako bat, gizonezkoena zein emakumezkoena, pertsona elbarrientzat erabiltzeko moduan jarriko da.

8. Artikulua. Argiteria.

Beste xedapen baterakorretan ezarritakoaren kalterik gabe, argiteria arrunta eta larrialdikoa izango dute establezimendu guztiek.

- 8.1.- Establezimenduko irteera guztietan larrialdietako argiak jarriko dira, eta pasaguneko hutsunearen gainean egongo da, ikusteko moduan eta berariaz adieraziko da "IRTEERA".
- 8.2.- Era berean, larrialdietako argiak jarriko dira, komunak, barra aldea eta establezimenduko edozein leku edo esparru behar bezala argitzeko.
- 8.3.- Establezimenduaren ezaugarriengatik 10 lux. baino txikiagoa den argiteria funtzionala aurrikusi bada, seinalizazio argiteria jarriko da, pertsonak handik ibiltzea eragotzi dezaketen elementu guztietan.

9. Artikulua. Zaratak eta dardarak.

DEFINIZIOAK

- SOINUA.- Hots dardara, hots sentsazioa sortzeko gai dena.
- ZARATA.- Atsegin ez eta nahi ez den soinua, edo edozein hots asaldura.
- ZARATA LARROSA.- Zarata mota bat; haren potentziaren espektro dentsitateak ez dauka zertan lotuta egon frekuentziak.
- GIROKO ZARATA.- Zarata globala, leku jakin batean, normalean soinuen ondorioz sortutakoa, leku gertu edo urrun batetik datozen soinuak:
- INGURUKO ZARATA.- Seinale bat sortu, transmititu, detektatu, neurtu edo erregistratzeko sistema batean iturri parasito guztietatik datozen zaraten multzoa.
- SOINU PRESIOAREN MAILA.- Soinu presioaren mailak zehaztuko du zarataren indizea, medido en la escala de ponderación "A"- "dB(A)" ponderazio eskalan neurturik, balio eraginkorretan adierazita, 20□Pa. aipatuz, UNE 21.314/75 arauaren arabera.
- MAILA ETENGABE BALIOKIDEA.- Ebaluazio indizea hauxe izango da: hirurogei segundotan - "L_{eq60}" hots presioko Maila Etengabe Baliokidea.

9.1.-

- 9.1.1.- Zarata eta dardara arloko erabakiak, batetik, Eusko Jaurlaritzak ekainaren 11ko 171/1985 Dekretuan ezarritakoari eta, bestetik, Zaratak eta Dardarak Sortzearen aurkako Inguramena Babesteko Udal Ordenantzari, eta gainontzeko araudi baterakorrari egokituko zaizkie.
- 9.1.2.- Oro har jardueraren inguruko etxebizitzetan gaueko 10etatik aurrera zarata iraunkorra HOGEITA HAMAR (30) dB (A) mailatik gorakoa denean, erabakitzen da iharduera hori dela eta etxebizitza horietara iristen den zarata ez dela inola ere HIRU (3) dB (A) mailatik gorakoa izango, hori baita erdi mailako zarataren neurria, maila etengabe baliokidean (L_{eq60}).
- 9.1.3.- Jarduerak sortutako zarata maila moduan hauek ezartzen dira, eta horiek erabiliko dira kalkulu oinarriak aplikatu eta hots-gabetzeak neurtzeko.

a) Eraskineko (IV) LAUGARREN TALDEkoak diren establezimenduak.

Establezimendu horien jardueraren ondorioz sortutako zarata EHUN (100) dB (A) mailan ezartzen da.

Udalbatzarrak egoki irizitako kasuetan, instalazioak gaizki erabili direlako, lokal hauek duten audio erreproduktzioko edozein sistema modu egokian mugatuko da, udalak alde aurretik onartutako sistema baten bidez, bolumen manduak gehienez jarrita, lokalaren barruan LAUROGEITA HAMAZAZPI (97) dB (A) mailatik gorako zaratarik sortu ez dezaten.

b) Eraskineko (III) HIRUGARREN TALDEkoak diren establezimenduak.

Establezimendu horien jardueraren ondorioz sortutako zarata LAUROGEITA HAMAHIRU (93) dB (A) mailan ezartzen da.

Udalbatzarrak egoki irizitako kasuetan, instalazioak gaizki erabili direlako, lokal hauek duten audio erreproduktzioko edozein sistema modu egokian mugatuko da, udalak alde aurretik onartutako sistema baten bidez, bolumen manduak gehienez jarrita, lokalaren barruan LAUROGEITA ZORTZI (88) dB (A) mailatik gorako zaratarik sortu ez dezaten.

c) Eraskineko (I eta II) LEHEN ETA BIGAGARREN TALDEkoak diren establezimenduak.

Establezimendu horien jardueraren ondorioz sortutako zarata LAUROGEITA HAMAR (90) dB (A) mailan ezartzen da, baldin eta audioa erreproduzitzeko edozein sistema badute, edozein motatako anplifikadore bidez eta leku publikoan ikusentzunezko instalazio baten bozgorailuen bidez, bolumen manduak gehienez jarrita, lokalaren barruan LAUROGEITA BOST (85) dB (A) mailatik gorako zaratarik sortu ez dezaten.

Eraskinaren (I eta II) Lehen eta Bigarren Taldeei dagozkien establezimenduek ikusentzunezko inolako aparatuek ez badute, edo irrati edo musika hariko aparatuak izan eta erreproduktzioa aparatuaren anplifikadorez eta bozgorailuz egiten bada, elementu horietan ezelako instalazio laguntzailerik egin gabe, establezimendu horien jardueraren ondorioz sortutako zarataren maila LAUROGEI (80) dB (A)-an ezartzen da.

Udalbatzarrak egoki irizitako kasuetan, instalazioak gaizki erabili direlako, lokal hauek duten audio erreproduktzioko edozein sistema modu egokian mugatuko da, udalak alde aurretik onartutako sistema baten bidez, bolumen manduak gehienez jarrita, lokalaren barruan HIRUROGEITA HAMABOST (75) dB (A) mailatik gorako zaratarik sortu ez dezaten.

9.2.-Zaraten eredia.

Ordenantza hauen ondorioetarako, zaratak neurtu eta frogatzeko, 50 Hz eta 10k Hz banden arteko ZARATA LARROSA moduan definitutakoa den zarata hartuko da eredu gisa. Zarata hori jardueraren tresneriaz erreproduziturik da, erabiltzeko behin-betikoz jarri ondoren, hura erabiltzeko lizentzia duten jardueretan.

9.3.-Hots isolamenduaren maila.

Jarduera mota bakoitzerako eskatzen den hots isolamenduaren maila gordina edo globala hauxe izango da: den talderako ezarrita dagoen zarata mailaren artean eta hargailuan atera daitekeen inmisioko gehieneko zarata mailaren arteko alde lineala.

9.4.-Neurtzeko irizpideak.

Hots neurtzeak eta frogatzeak ZARATAK ETA DARDARAK SORTZEAREN AURKAKO INGURUMENA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAn ezarritakoari egokituko zaizkio, maila altuagoko beste xedapen arautzaile batzuk eta Ordenantza honek, izaera mugatuagoaz, izan ditzaketan aldaerak ezartzeari kalterik egin gabe.

Neurtzean balio hauek hartuko dira:

- Establezimendu barruan sortutako zarata maila, A (dB (A)) ponderazio eskalan neurtuta, hirurogei (60) segunduko (Leq 60`) maila etengabe baliokidean.
- Hondo zarataren maila eragindako hargailuaren barrualdean eta baldintza berberetan.
- Inmisio zarataren maila establezimenduan sortutako hargailuan eta baldintza berberetan.
- Establezimenduak duen isolamendu orokorraren maila, A (dB (A)) ponderazio eskalan zehazturik, 100 eta 5.000 Hz. banden artean zortziaren 1/3ko fekuentzian zarata ereduaren analisi baten bidez, bate etorri en concordancia con la metodología establecida por la Norma ISO 140.III eta .IV Arauak ezarritako metodologiarekin eta haren baliokidetasuna UNE 74.040.3 eta 4 Arauan, jarduera mota horretarako ezarria eta etxebizitza batean uzten den gehieneko zarata maila (inmisiokoa), ordutegiaren eta jarduera motaren arabera.

Zuzendu egingo da, lortutako isolamenduaren balioen hondo zarataren eraginez.

Hotsak neurtzeko prozesuan isolamendua zehazteko hargailuan, zarata edo dardarengatik nekarazi dezaketen aparatu guztiak jarriko dira martxan.

- Tonu garbiak edo oldarkorrak dauden erabakitzea eta, hala badagokio, zuzentzea, neurketan ateratako neurriak zehatzearen ondorioz.
- Ahal den guztietan, neurketaren esparruaren erdialde geometrikoan jarriko da sonometroaren mikrofonoa, eta edozein modutan ere parametro bertikaletatik eta leihoetatik urrun gutxienez metro bat (1) eta hirurogeita hamar zentrimotrara (70 cm) erreflexioak sor ditzakeen edozein objektutik, operadorea barne, eta lurzorutik metro bat 20 cm eta metro bat berrogeita hamar cm arteko alturara (>1,20 m y <1,50 m.)
- Saio bakoitzean gutxienez hirutan neurtuko da mikrofonoaren norabidea aldatuz, geldi dauden onden intzidentziarik izan ez dadin, eta kontuan hartuko da egin diren neurri baliozkoen batezbesteko aritmetikoen balioa, gehieneko eta gutxieneko balioak hartu gabe, neurketa bakoitzean errepikatzen ez bira behintzat. Kontuan hartu diren neurketen desbideraketa 6 dB (A) baino handiagoa bada, batezbesteko energetikoa hartuko da, batezbesteko aritmetikoa hartu beharrean.

9.5 Zarata kanpoaldera transmititzea.

Jarduera batek ere ezin izango du transmititu kanpora 55 dB (A) baino handiagoa den zarata mailarik egunez eta 45 dB (A) baino handiagoa den zarata mailarik gauez, fatxadaren hots elementu ahulenaren parean neurtuta, bi metroko distantziara (2,0 m).

9.6 Inpaktuko zarata transmititzea.

Jarduera bateko inpaktu zaratak hargailu batera transmititzea Inpaktuko Zaraten Makina Normalizatuaren bidez ebaluatuko da, eta ez da balio hauek baino handiagoa izango, jarduera motaren arabera:

I Taldea 80 dB(A)

II Taldea 70 dB(A)
III Taldea 65 dB(A)
IV Taldea 60 dB(A)

9.7 Soinu inmisioko neurriak direnez, aplikatu ahal izango da bakarrik, ebaluazio maila zuzentzea hondo zarata dagoenean, baldintza hauetan:

a.-Baloratzen ari den antzeko jatorri duen beste iturri batetik ez etortzea hondo zarata.

b.-Egonkorra izatea, hots neurriak ikuskatzekoak direnean.

c.-Haren maila 2 eta 8 dB artean egotea, batezbesteko mailatik behera, zuzenketa barik.

9.7.1 Ikuskatzeko neurrietan

a.- Hondo zarata hori egonkorra ez bada, neurri horiek egingo dira gutxienekoa denean zarata hori, eta ez da ezer zuzenduko horregatik.

b.- Hondo zarataren maila honela ezartzen da: "Fast" konstanteaz ikusi diren gutxieneko mailen batezbestekoa, gutxienez neurri posizioan 10 segundutik segundura, minutu bateko espazioan, ebaluatzen denean zarata geldia egonez gero.

9.7.2 Zuzentzea

Bi (2) dB-koa izango da hondo zarataren zuzentzea, jardueraren batezbesteko balioaren artean eta hondo zarataren artean dagoen aldea lau edo sei dezibiliokoa denean (4 edo 6 dB), eta dezibilio batekoa (1 dB) alde hori sei ta 8 dezibilio artean (eta 8 dB) egonez gero.

Teknikariak berak behar bezala justifikatutako gorabehera batzuetan, zehaztasuneko neurriak egin ahal izango dira, hondo zarataren mailaren eta jardueraren arteko aldea bi eta lau dezibelio (2 eta 4 dB) artean egonez gero.

9.8 TRESNERIA

Kategoria hauek ezarri dira, hura neurtzeko eskatzen den zehaztasunaren arabera:

* Zer gogaikarriak ikuskatu eta egiaztatzeko neurriak.

* Zehaztasuneko neurriak.

Zehaztasunez neurtzeko erabili den tresneria 1 tipokoa izango da, IEC-651 arauaren arabera; sonometro integratzaileak erabiliz gero, IEC-804 araua bete behar dute.

1 motako hots kalibradoreaz neurri seriea egin aurretik eta gero egiaztatuko da erregistro katea, IEC-42 arauaren arabera.

Ikuskatzeko neurrietan, 2 tipoko tresneria erabil daiteke, hura ere egiaztaturik eta neurturik.

10. Artikulua. Suteei aurrea hartzea.

Suteen aurka babesteko preskripzioak "NBE-CPI/96 Eraikuntzaren Oinarrizko Arauari dagozkion Xedapen Orokorrak izango dira: eraikinen suteen aurka babesteko baldintzak", eta horiei buruzko arauak.

11. Artikulua. Egiturazko elementuen segurtasuna eta jarduerak jartzea.

Ezingo da Ordenantza honetan aurrikusitako establezimendurik ireki, baldin eta alde zuzenetik udal honetan aurkeztu ez bada teknikari eskudunak sinaturiko ziurtagiria. Teknikari horrek bergain hartu behar du haren eta instalazioen egiturazko segurtasuna, kontuan harturik aurrikusitako den erabilera publikoa.

Dagokion Kolegio Ofizialak ikus-onetsi behar du ziurtagiri hori.

12. Artikulua. Abian jartzeari buruzko ziurtagiria.

Baimena jaso arren, jarduera ezingo da hasi alde zuzentzeko udaleko funtzionario teknikariak ikuskatzeko bisita egin ez badu, lizentzian ezarri diren neurri zuzentzaileak bete diren egiaztatzeko. Hartarako, obrak amaitutakoan, udalari jakinarazi beharko dio eta obrako zuzendariak sinatutako ziurtagiria aurkeztu behar du, eta ziurtagiri horretan hauek agertuko dira, horiek burutzean: batetik, jarduera lizentzian nahiz obren lizentzian ezarritako baldintza guztiak bete direla eta, bestetik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren dagokion ziurtagiria, administrazioko gainerako dokumentazioaren kalterik gabe.

13. Artikulua. Ixteko ordutegiak.

Jarduera bakoitzerako ezarritako ixteko orduak abenduaren 16ko 296/1997 Dekretuan adierazitakoak edo ordezko arauak izango dira. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan ikuskizun publikoen eta jolas jardueren eta jarduera horiei buruzko beste aspektu batzuen ordutegiak ezartzen dira.

I. Taldean dauden dastaleku, gozotegi, izozkitegi eta gainerako establezimenduei, Dekretu horretan datorren sailkapenaren arabera, aipatu arauak ezartzen duen ordutegia aplikatuko zaie, beti ere ordu horietan jarduteko behar bezala hosgabeturik egonez gero establezimendu horiek. Hosgabetze hori izan ezean, ezin izango dute ireki goizeko 8ak baino lehen, eta itxi gaueko 10etatik aurrera.

14. Artikulua. Jarduerak sailkatzeko arauak.

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailak abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua aldarrikatu zuenetik, horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskizun publiko eta jolas jardueretarako lokalak eta establezimenduak ireki eta ixteko ordutegiak ezartzen dituen, aipatu jarduerak identifikatzeko arazoak daude, hala nola Dekretu horren bigarren artikuluko atalenak.

Behin-behinekotasunez, irizpideak ematea du helburu Taberna, Kafetegi eta Antzekoak Sailkatzeko Arau honek, atal honetako batean dauden jarduerak definitzeko, sailkatu edo bereiztu daitezkeen horiek eta, horren ondorioz, horiek ireki eta ixteko ordutegia hartzea, haien instalazioak arautze dituen araudiaren eta izaera espezifikoak duten funtzionamendu arauen kalterik gabe.

14.1 . - Ezartzeko prozesua.

- a.- Modu orokorrean eta establezimenduetako titularreak berriaz eskatu gabe, Taberna, Kafetegi eta antzekoen izenez agertzen diren jarduera guztiak halaxe deituko dira eta, hortaz, 296/1997 Dekretu horretako bigarren artikuluko II. Taldearen barruan sailkatuko dira, 1989ko abenduaren 1az geroztik sailkatzea lortu dutenak izan ezik.
- b.- Arrasateko udalerrian jarri nahi diren jarduera berriak, hemen agertzen diren kategorietako batean sartu nahi dutenean titularrek haien borondatez, edota 296/1997 Dekretuan ezarritako sailkapenaren arabera egin nahi dutenek, justifikazio moduan behar den dokumentazioa eduki behar dute behar bezala sailkatzeko, indarrean dagoen legeriak eta arau hauek ezarritakoaren arabera.
- c.- Duten sailkatzea aldatu nahi duten eta lege ezarrita dauden jarduera guztiek udaletxean eskabidea aurkeztuz egin behar dute, eta hartarako behar den dokumentazioa aurkeztuko dute, kategoria berrikoak direla justifikatzeko.

14.2.- 296/1997 Dekretuko bigarren artikuluko 3. taldea.

Arrasateko udalerrirako, establezimenduak 296/1997 Dekretuaren bigarren artikuluan zehaztutako 3. Taldearen barruan sartuko dira, dagozkion ordutegiak aplikatzearen ondorioz, hemen agertzen diren izen eta ezaugarrien arabera.

a.- Kafetegiak, tabernak, Kafelekuak, Dastatzeko lekuak eta antzekoak ordutegi berezietan.

Izen horren barruan sartzen dira, Turismo Enpresa eta Jardueren Zuzendaritza Orokorrek asignatutako "kategoria berezi"koak izateaz gain, baldintza hauek betetzen dituzten establezimendu guztiak:

AZALERA PUBLIKOA

Establezimendu horietako azalera publiko ez da izango 40 m² baino txikiagoa, eta inskribatu ahal izango da lokal horretan 3 m-ko diametroa duen zirkunferentzia bat, haren lekuren batean.

ERAIKINAREN KOKALEKUA

Jarduera dagoen lokalak espaloia kanpoaldeko sestraren maila berean egon behar du, eta ± 54 cm baino txikiagoa den kotako aldea izango da aipatu hori.

KOMUNAK

Gizonentzako eta emakumeentzako komunak izango ditu; komunaurreko batetik joango da horietara, eta gutxienez bi metro karratuko azalera izango du, alde txikienak 1,20 m izango du, gutxienez, eta leku horretan ezingo da aparatu sanitariorik eduki eta ezingo da isolatu gainontzekotik.

Komun bakoitzean Ordenantza honetako komun enatalean adierazten den komun kopurua izan beharko da (1,2 m²)bat hogeituro metro karratukoa, eta alde txikienak metro bat baino gutxiago izango du, eta konketa kopuru berdina.

AIREZTATZEA

Airezatze derrigor-tuko sistema bat izango du establezimenduak, eta eroanbide eksklusiboa izango du eraikinetako instalazio doana, udal ordenantzek ezartzen dutenaren arabera, tabernak, kafetegiak eta antzekoak arautzen dituztenak, eta horiei buruzko arauak ezartzen dutenaren arabera.

SEGURTASUNeko ELEMENTUAK.

NBE-CPI 96 arauan datorrenaren kalterik gabe, suteen aurkako alarma sistema automatikoa izango du establezimenduak.

Era berean, kontuan hartuko dira bereziki larrialdietako argi sistemak. Ustekaberen bat izanez gero, establezimenduko bulego guztiak eta alde guztiak sistema autonomoz argizatuko dira.

OSAGIAK.

Gutxienez telefono publiko bat izango dute, elbarrientzat egokiturik, halako zerbitzua eroso erabil dezaten behar bezala egokitu eta hosgabetutako esparru baten barruan.

JANTZIAK.

Pertsonalaren jantziei buruz, Laneko Segurtasuna eta Higieneko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa bete behar da, 1971ko martxoaren 9ko Agindua.

b.-Pub eta Disko Bar.

Arau hauen ondorioetarako, PUB eta DISKO BARTzat joko dira, establezimenduan bertan kontsumitzeko edariak saltzeaz aparte, bitarteko elektronikoz erreproduzitutako musika entzutea eskaintzen dutenak.

- 1.- Hartarako, barra aldetik aparte entzuteko leku bat izan behar dute halako establezimenduek, eta leku horretan mahaiak eta jarlekuak kokatuko dira musika entzun ahal izateko, eta aldi berean edariak kontsumitzeko; mahaietan bertan zerbitzatuko dira eta azalera publikoaren %50 izango da leku horren azalera.

Edonola ere, entzunleku horrek gutxienez hogeit (20) metro karratuko azalera izango du eta gutxienez bost (5) mahai, bakoitzean lau (4) jarleku dituela.

- 2.- Lehen adierazi denaz aparte, "Ordutegi berezia duten Kafetegi, Taberna, Kafeleku, Dastaleku eta Antzeko"etarako 14.2 artikuluko honetako a.- hizkian adierazten diren baldintzak bete behar dituzte establezimendu horiek.

c.-Whiskeriak, Klubak eta Bar Amerikarrak.

Arau honen ondorioetarako, se entenderá por WHISKERIA, KLUB eta TABERNA AMERIKARTzat joko dira, lokalean bertan kontsumitzeko edariak saltzeaz aparte, indarrean dauden legeak ezarritako moduan bezeroek ondo pasatzeko pertsonekin batera egotea eskaintzen duten establezimendu guztiak.

"Ordutegi berezia duten Kafetegi, Taberna, Kafeleku, Dastaleku eta Antzeko"etarako 14.2 artikuluko honetako a.- hizkian adierazten diren baldintzak bete behar dituzte establezimendu horiek.

15. Artikulua. Santzionatzeko araubidea.

- 15.1.- Oro har, Ordenantza honen erabakiak betetzen ez direnean, Iharduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskugarrien erreglamendu arautzen duen azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurikusitakoari lotuko zaio errekeritu, egiaztatu eta zehatzeko araubidea.

- 15.2.- Zaraten ondoriozko kalteak

Bereziki zarata eta dardara arloko arau-hausteei dagokienez, hauaxe ezartzen da:

15.2.1.- Prozedura

Dagokien hots neurrietan oinarrituz, establezimendu batek jarduteko behar besteko hots isolamendua duela argi eta garbi erabakitzen denean, eta hala ere, lokalaren barruko jardueratik sortutako zarategatik behin eta berriro egiten badira salaketak, erabakiko da egoki erabili ez direlako sortzen direla eta jarduera horrek ez duela kontrolik, sortzen dutelarik establezimenduaren barrualdean egokitu zenean jarritako mugak baino hots handiagoa. Hartarako, honela jardun behar da:

- 1.- Eragindakoak salaketa formala egingo du, bai Arrasateko udaletxean edo bai Ordena publikoaz arduratzen den polizia agintariaren aurrean.
- 2.- Nekarazten duela egiaztatu behar da, etxebizitza barrura iristen diren zaratak neurtuz, indarrean dagoen araudiaren arabera, aurrez establezimenduaren titularrari ezer esan gabe, eta homologatuta eta behar bezala kalibratuta dagoen sonometro bat erabiliz; neurtutakoaren akta formala jasoko da neurtzailea eta salatzailea ez diren beste bi lekukoren aurrean. Akta horretan, berariaz, hauek jasoko dituzte: nekaraztea sortzen duten zaratak, batetik, jarduera horretatik datozela eta, bestetik, ez dagoela hartu den neurrian eragina izan dezakeen beste inolako zaratarik.

Batetik, udal teknikariek, udaltzaingoak, ertzaintzak egin ahal izango dituzte aktak, edota hotsa neurtzen aditu diren enpresa batek, aurrez udalak onartu badu.

- 3.- Akta horien berri emango zaio udalari eta haren esku utziko dira, legeak agintzen duenaren arabera behar dena egin dezan.

15.2.2.-Zaraten ondorioz jardueran sortutako kalteak.

- 1.- Jarduera batek ez ditu behar bezala erabiltzen bere instalazioak, edota ez du kontrolik horietan, ezarritako mugatik gorakoa den BOST (5) dB (A) maila agertzen denean hartu diren neurrien aktetan, edo LAUROGEITA HAMAR (90) EGUN NATURALEko aldian hiru akta desberdin daudenean; akta horietan zaratak handiagoak direla agertuko da, lehen agertu den BOST (5) dB (A) aldea gainditu barik.
- 2.- A (dB (A)) ponderazio eskalan neurtuko da zarata maila, hirurogei (60') segunduko maila jarraitu baliokidean.

Nolanahi ere, neurtu ahal izango dira zarata oldarkorrak eta tonu garbiak daudela ikusteko, Arrasateko udal ordenantzak ezarritakoaren arabera.

Jasotako akta bakoitzeko, hiru (3) bider neurtuko dira gutxienez.

- 3.- Horrela neurtutakoaren aktak datu hauek jaso behar ditu gutxienez:
 - Neurria zein egunetan eta zein ordutan hartu.
 - Salatzaileren izena eta sinadura.
 - Etxebizitzaren helbidea eta deskribapena, eeta horren krokisa egin eta sonometroa non kokatuko den adierazi.
 - Akta egin den jardueraren izena eta helbidea.
 - Neurtzailearen izena eta sinadura.
 - Lekukoaren izen-abizenak eta helbidea, eta haien sinadura.
 - Sonometro mota eta haren identifikazio marka, serieko zenbakiaz.

15.2.3.- Santzio mailak

Jarduerak sortutako zaratek nekarazi egiten dutela egiaztatuz gero, eta gertaera horri dagozkion aringarri eta egingarri guztiak aztertu eta kontuan hartu ostean, udal agintzaritzak, legez ezarritako bideak erabiliz, santzio hauek aplikatuko ditu:

1. Irregularitasun horien berri ematea jardueraren titularrari, eta halakoek jarraituz gero, neurri gogoragoak erabililiko direla ohartaraztea.
2. HAMABOST (15) egun naturaletik beherakoa eta LAUROGEITA HAMAR (90) egunetik gorakoa izango ez den aldi batez, berariaz debekatzea ikusentzunezko edozein aparatu erabiltzea jardueraren barruan, gaueko HAMARRETATIK (22:00) aurrera edo jardueraren aldi guztian.
3. ZAZPI (7) egun naturaletik beherakoa eta LAUROGEITA HAMAR (90) egunetik gorakoa izango ez den aldi batez, berariaz debekatzea zer horretan jardutea gaueko HAMARRETATIK (22:00) aurrera.
4. ZAZPI (7) egun naturaletik beherakoa eta LAUROGEITA HAMAR (90) egunetik gorakoa izango ez den aldi batez, berariaz debekatzea zer horretan jardutea.
5. Aldi mugagabe batez, berariaz debekatzea jardueraren barruan era guztietako ikusentzunezko aparatuak erabiltzea, gaueko HAMARRETATIK (22:00) aurrera edo jardueraren aldi guztian.
6. Aldi mugagabe batez, berariaz debekatzea zer horretan jardutea, gaueko HAMARRETATIK (22:00) aurrera.

7. Jarduera ixtea aldi mugagabe batez, nekaraztearena konpontzeko neurri zuzentzaileak aplikatzen ez diren bitartean eta martxan ez dabilen aldia 6 hilekoa baino handiagoa ez bada, zeren eta aldi hori igarotakoan, ordenantza honetako 16 artikuluan dagoena aplikatu baita.

15.3.Itxi eta zabalatzeko orduak ez betetzea

Bereziki jarduerak itxi eta zabaltzeko eta jardueren ordutegiari buruz, hauxe ezartzen da:

15.3.1.- Zabaldu eta ixteko ordutegiari buruz, Ordenantza honek arautzen duen jarduera jakin baten ustezko arau-haustea daudela egiaztatu ostean, eta gertaera horri dagozkion aringarri eta egingarri guztiak aztertu eta kontuan hartu ostean, udal agintzaritzak, legez ezarritako bideak erabiliz, santzio hauek aplikatuko ditu, arauak behin eta berriro hautsiz gero eta larritasunean oinarrituz, Eusko Jaurlaritzaren 296/1997 Dekretuan, abenduaren 16koa, ezarritako irizpideen eta zenbatekoen arabera.

1.-Isuna, 50.000 pezetatik gorakoa izango ez dena.

2.-Isuna, 50.000 pezetatik gorakoa eta 200.000 pezetatik beherakoa.

3.-Isuna, 200.000 pezetatik gorakoa eta 1.000.000 pezetatik beherakoa.

4.-Isuna, 1.000.000 pezetatik gorakoa eta 3.000.000 pezetatik beherakoa.

5.-Isuna, 2.000.000 pezetakoa eta berariaz debekatzea zer horretan jardutea, HOGETA HAMAR (30) egun naturaletik beherakoa eta LAUROGEITA HAMAR (90) egunetik gorakoa izango ez den aldi batez.

6.-Isuna, 2.000.000 pezetakoa eta berariaz debekatzea zer horretan jardutea, LAUROGEITA HAMAR (90) egun naturaletik beherakoa eta URTE (1) batetik gorakoa izango ez den aldi batez.

3, 4, 5 eta 6. ataletan datozen santzioak aplikatzeko, beste bi hutsegite egin behar da, santzio hori ekarri duen arau-haustearen batzordea baino urte bat lehenagoko epean, hau da, azken hori urtebetean hausten den hirugarrena bada.

15.3.2.- Mailaz maila ezarriko dira aurreko santzioak, artikulua honetan arautzen diren arau-haustea behin eta berriro egiten diren ikusita. Hortaz, lehen arau-hausteari 1. atalean jasotzen den santzioa egokituko zaio, bigarren arau-hausteari 2. atalean adierazten dena eta horrela bata bestearen atzetik, ezarrita dagoen santzioen mailaketa agortu arte.

Hori guztia (15.3.1) artikulua honetako aurreko ataleko azken paragrafoan xedatutakoaren kalterik gabe. Gainera, gradu sistema horren arabera artikulua horretako 3, 4, 5 eta 6. zkatetan agertzen diren santzioetako bat ezartzea egokituz gero, paragrafo horretan (15.3.1 art.aren azken paragrafoa) aurrikusitako gorabeherak izaten ez direnean, agindu horretako 2. zenbakian agertzen den santzioa aplikatuko da.

15.3.3.- Atal horietako bakoitzaren barruan, arau-hausteen larritasun handiena edo txikiena bereizteko, eta kontuan har daitezkeen beste gorabehera batzuen kalterik gabe (arau-haustetik datorren kaltea, ...), jarduerarako ezarrita dagoen ixteko ordutegiaren artean eta "Arau-haustearen akta"n jarritakoaren artean igarotako tartea hartuko da oinarritzko erreferentzia moduan.

Aurreko paragrafoan adierazitakoa objetibatzeko, formula honetatik ateratzen den faktorea aplikatuko da:

$$f = \frac{H1 - H0}{60} \quad (0 < f < 1)$$

- "H1": "arau-hausteen akta"n agertzen den ordutegia, minutuetan jasota.

- "H0", establezimenduaren edo jarduera motarako indarrean dagoen araudian ezarritako ordutegia, minutuetan jasota.

- "f", ateratzen den faktorea, eta honela aplikatuko da:

*Santzio ekonomikoa, pezetan, 1. atalean jasotakoa = $f \times 50.000$.

*Santzio ekonomikoa, pezetan, 2. atalean jasotakoa = $50.000 + (f \times 150.000)$.

*Santzio ekonomikoa, pezetan, 3. atalean jasotakoa = $200.000 + (f \times 800.000)$

*Santzio ekonomikoa, pezetan, 4. atalean jasotakoa = $1.000.000 + (f \times 2.000.000)$

*Santzioa egunetan, 5. atalean ezarritakoa = $30 + (f \times 60)$

*Santzioa egunetan, 6. atalean ezarritakoa = $90 + (f \times 275)$

Edozelan ere, lehen xedatutakoari lotuta egongo da santzio horiek ezartzea, kontuan hartu behar diren beste gorabehera batzuei dagokienez.

15.3.4.- Aldi baterako lizentzia motaren bati buruz hautsiz gero arauak, hala nola, etxolak, txoznak, terrazak, toldoak, e.a., galdu egingo da emandako lizentzia, eta berriro eskatu beharko da lizentzia hori, onura horiek jaso nahi izanez gero; eta gerta liteke lizentziarik ez ematea, arau-hausteen mailaren arabera eta hautsiz gero behin eta berriro arauok.

15.3.5.- Prozedura.

Halako establezimenduak itxi eta zabaltzeko ordutegiak bete ez direlako, ustezko arau-hausteen ondorioz salaketa akatak jaso ostean, aginpidea duten agenteek jasota aktak, dagokion zigor espedientea irekiko da, eta indarrean dagoen legerian xedatutakoaren arabera tramitatuko da hori.

Prozedura hori tramitatu bitartean beste salaketa akta bat jasoz gero antzeko gertaerak izan direlako, akta hori espedienteari gehituko zaio, 15.3.3 atalaren azken paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, santzioak ezartzean kontuan hartu behar diren gorabehera buruz.

15.3.6.- Behin eta berriro haustea.

Santzioen mailaketarako, behin eta berriro hausten dela esango da, hautsi diren arauak sei (6) hil natural baino aldi txikiagoan gertatzen direnean, azken santzioa ezarri zen egunetik hasita.

16. Artikulua. Jarduerari uztea.

Ordenantza hauen ondorioetarako, jarduera bati utzi egin zaiola ulertuko da, hemen aipatzen diren gorabeheraren bat izanez gero:

16.1.- Titularrak udal honi halaxe adierazten dionean idatzi formal baten bidez, jarduerari uzteko nahai duela azalduz.

16.2.- Lekukoen bidez eta argi eta garbi egiaztatu daitekeenean SEI (6) HIL natural baino luzeagoko epean leku hartan ez dutela lanik egin, eta ezinbesteko arrazoizko motiborik gabe.

1. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetako 1-3-2 artikuluan xedatutakoa gorabehera, udalbatzarraren aztertuta, erabaki horietako batzuk betetzetik salbu geratu daitezke hori aldarrikatu aurretik zeuden establezimenduak, neurri horietara egokitzeko ezintasuna justifikatzen bada.

Aurreko atalaren arabera, hauek izango dira salbuetsirik geratu daitezkeen erabakiak:

Artikulu hauetan sartzen direnak * 4 ----- osoa

* 5-2--- 5-2-3 izan ezik

5-2-5

- * 5-3--- 5-3-3 izan ezik
- * 5-4

2. XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan agertzen ez den guztian, beste ordenantza partikular batzuetan ezarritakoari jarraituko zaio, eta hala badagokio, Arau orokorren eta goi mailako erabakietan ezarritakoari.

3. XEDAPEN GEHIGARRIA

Eusko Jaurlaritzaren 296/1997 Dekretuaz, abenduaren 16koa, ikuskizun publikoen eta jolas jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituenak, zeozer aipatzen du ordenantza honek hainbat pasartetan, hala badagokio, Dekretu horren ordeztartzen diren arauen arabera egingo dela ulertuko da.

XEDAPEN DEROGATZAILEA

Derogatu egin dira 1989ko abenduaren 1ean eta 1993ko uztailaren 16an arrasateko udalbatzarrak behin-betiko onartu zituen Taberna, Kafetegi eta Antzekoen Instalazioa arautzen duen Udal Ordenantza eta Ordenantza horri egindako III. Eraskina.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honen behin-betiko testua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hasita hamabost eguneko epean jarriko da indarrean Ordenantza hau, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70-2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

I. ERASKINA

TALDEKAKO SAILKATZEA

Aipatzekoa ez bada ere, hona hemen zein jarduera sartu dituzten 296/1997 Dekretuak sailkatu dituen lau taldeetan..

DEA.- *BAR, TABERNA, GOZOTEGIA, IZOZKITEGIA ETA EGUNEZ EDOZELAKO DEGUSTAZIOAK

*GAZTEENTZAKO DANTZALEKUAK

DEA.- *TABERNAK
*BODEGAK
*BAR ETA KAFETEGIAK
*KAFETEGIAK
*DEGUSTAZIOAK
*JATETXEAK
*TXOKOAK
*BAR EDO SUKALDE DUTEN ELKARTEAK

LDEA.- *BAR, KAFETEGIAK ETA ANTZEKOAK, ORDUTEGI BEREZIA DUTENAK
*PUB
*DISKO-BAR
*WHISKI LEKUAK
*KLUB
* AMERIKAKO BAR
*JOLAS ETA JOKO ARETOAK
*BOLATOKIAK ETA ANTZEKOAK

LDEA.- *DISKOTEKAK
*BOITEAK
*DANTZA ARETOAK
*DANTZALEKUAK
*KANTU KAFETEGIAK
*KONTZERTU KAFETEGIAK
*BINGOAK ETA ANTZEKOAK